



HAUTATU MAITATZEA. HAUTATU KOMUNITATEA.



Beti ezin dugu mundua aldatu.
Baina munduan nola bizi aukera dezakegu.

PRENTSA OHARRA

“HAUTATU MAITATZEA. HAUTATU KOMUNITATEA”: GIZARTEAREN
HAUSKORTASUNAREN GORAKADAZ OHARTARAZI DU CÁRITASEK ETA KOMUNITATEA
ERANTZUN GISA ALDARRIKATU DU.

GASTEIZKO ELIZBARRUTIKO CÁRITASEK 3.908 ETXERI ESKAINI ZIEN LAGUNTZA 2025EAN, ETA
HORREK IA 9.770 PERTSONARI ERAGIN ZIEN, PREKARIETATEAK, ETXEBIZITZA ESKURATZEKO
ZAILTASUNEK ETA GIZARTE HARREMANEN AHULTZEAK MARKATUTAKO TESTUINGURUAN.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 3a

Bakardadea, etxebizitza-prekarietatea eta gizarte-hauskortasuna gero eta presenteago daude
Gasteizko Elizbarrutiko Cáritasen programa eta zerbitzuek laguntzen dituzten egoera askotan.

2025ean, erakundeak guztira 3.908 etxeri eskaini zien laguntza, eta horrek ia 9.770 pertsona
hartzen ditu barne elizbarrutiko lurralde osoan. Testuinguru horretan, gizarte-bazterkeria gero
eta modu konplexuagoan, luzatuagoan eta, askotan, isilean agertzen da.

“Elige amar. Elige comunidad / Hautatu maitatzea. Hautatu komunitatea” lelopean, Gasteizko
Elizbarrutiko Cáritasek 2026ko Karitate Kanpaina instituzionala eta urteko memoriako datu
nagusiak aurkeztu ditu.

Kanpaina honek topaketaren, elkar zaintzearen eta komunitatea eraikitzearen garrantzia
azpimarratzen du, isolamenduari, zaurgarritasunari eta gizarte-harremanen ahultzeari
erantzuteko.

Cáritasetatik adierazi dugunez, *“gizarte-bazterkeria ezin da soilik enplegu faltatik edo diru-sarrera
eskasetatik ulertu”, eta “gero eta pertsona gehiago aurkitzen ditugu, lana edo laguntza jakin
batzuk izan arren, etxebizitzarekin, ziurgabetasunarekin, bakardadearekin edo bizi-proiektu duin
bati eusteko zailtasunekin lotutako hauskortasun egoera larriak bizitzen jarraitzen dutenak”.*

Etxebizitza eta gazteen prekarietatea, kezka nagusien artean

2025ean Cáritasek hautemandako errealitateak agerian uzten du etxebizitza dela oraindik ere
bazterkeria eta gizarte-kezkaen faktore nagusietako bat. Esku-hartze bulegoetan 577 laguntza
ekonomiko zuzen eskaini ziren, batez ere elikadura, arropa eta etxebizitzarekin lotutako
oinarriko beharrei erantzuteko.

Horrez gain, guztira 28 pertsona biltzen dituzten 10 familiak parte hartu zuten Gasteizko
Elizbarrutiko Cáritasek sustatutako etxebizitza-laguntzako programan.

Más información | Informazio gehiago:

Mercedes Escribano Abad

945 23 28 50 – 688 71 37 87 comunicacion@caritasvitoria.org | caritasvitoria.org

Bestalde, Cáritasek gazteen artean prekarietate egoeren hazkundera ere antzeman du, bereziki emantzipatzeko ezintasunarekin, soldata baxuekin eta bizi-proiektu autonomo eta egonkorra eraikitzeke zailtasunekin lotuta.

Enplegua, gizarteratzea eta laguntza

2025ean, Gasteizko Elizbarrutiko Cáritasek prestakuntza, enplegu eta gizarteratze programak indartzen jarraitu zuen, ia milioi bat euro bideratuz enplegu eta prestakuntza programetara.

Lan Bila Cáritasen lan-bitartekaritza agentziaren bidez, 702 pertsonak parte hartu zuten enplegu bilaketa eta lan-orientazioko prozesuetan. Guztira 294 lan-eskaintza kudeatu ziren, eta horietatik 173 bete ziren. Gainera, 15 pertsonak errotzea lortu zuten gizarteratze prozesu horiei esker.

Horrez gain, ehunka pertsonak parte hartu zuten prestakuntza-ibilbideetan, alfabetatze ikastaroetan, oinarriko gaitasunen garapenean eta lan arloko laguntzan, inklusiorako eta autonomia pertsonalerako aukerak indartuz.

Komunitatea ere zaintzeko modu bat da

“Mundua ezin dugu beti aldatu. Baina bai aukeratu nola bizi bertan” da Corpus Christi honetako kanpaina instituzionalaren mezu nagusietako bat.

Kanpainak eguneroko keinu txikiek duten eraldatzeko gaitasuna nabarmendu nahi du, gero eta individualistagoa den gizarte-testuinguru batean.

Kanpainak eguneroko keinu txikien eraldatzeko gaitasuna balioan jarri nahi du: entzutea, laguntzea, denbora partekatzea, prozesuei eustea eta pertsonak harrera eginak, aitortuak eta komunitate baten parte senti daitezkeen espazioak sortzea.

Lan hori guztia posible da ehunka boluntarioren konpromisoari esker, baita Arabako lurraldean Cáritasen eguneroko jarduna sostengatzen duten parrokia-komunitate eta taldeen inplikazioari esker ere.

Gaur egun, Gasteizko Elizbarrutiko Cáritasen sareak 40 parrokiako eta zonaldeko Cáritas eta 600 boluntario baino gehiago ditu laguntza, sentsibilizazio eta komunitate-dinamizazioko lanetan.

Ziurgabetasunak eta hauskortasunak markatutako garai honetan, Gasteizko Elizbarrutiko Cáritasek funtsezko zerbait erdigunean jartzen jarraitu nahi du: parte sentitzearen garrantzia, loturak zaintzearen beharra eta pertsonak elkartu, elkar sostengatu eta elkarrekin ibili ahal izango diren espazioak eraikitzea.

Izan ere, askotan gertutasunak, entzuteak eta eguneroko konpromisoak irekitzen diote bidea itxaropenari eta komunitate gizatiarrago, kontzienteago eta abegikorrago bati.

“Hautatu maitatzea. Hautatu komunitatea. Etorkizuna ere elkar zainduz eraikitzen delako.”

Más información | Informazio gehiago:

Mercedes Escribano Abad

945 23 28 50 – 688 71 37 87 comunicacion@caritasvitoria.org | caritasvitoria.org